


2.BEZEROEN SEGMENTAZIOA

Gure bezeroak Euskal Herriko ikasleak izango dira. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa ikasten dabiltzan ikasleak hain zuzen ere. Hasiera batean ikasle horietara bakarrik bideratzea daukagu pentsatuta, aurrerantzean beste ikasketa maila altuagoetara ere zabaltzeko aukera irekia utziz.

Gure enpresa ez dago bakarrik zehaztuta ikasle alperrentzako, edota zailtasunak dituztenentzako. Easylksin bezero guztiak ongietorriak izango dira. Bezero bakoitzak helburu desberdin bat izango du, adibidez, batek gaitzitatearekin nahikoa dauka eta horretarako pare bat bideo tutorial edota ariketa ebatzi batzuk ikustearekin nahikoa izango du. Aldiz beste bezero batek, bikaina lortzea izango du helburu eta horretarako bideoak eta ariketa ebatziak ikusiz aparte, guk geuk jarritako ariketa lagungarriak eta errepositorako ariketak burutuko ditu.

Easylksik Euskal Herriko ikasleei lagunduko die. Zehatzak izateko 12-18 urteen artean dauden umeei.

Euskal Herriko Biztanleria



Grafiko honetan ikus genezakeen bezala, 12-18 urteko biztalenriaren kopurua Euskal Herrian ugaria da, biztanleria guztiaren %7,2 zehazki. Horrek esan nahi du, Euskal Herrian 156065 bezero posible ditugula. Etorkizuneko kalkulu positibo bat eginenez, espero dugu gure enpresak 10.000 bezero izatea. Kopuru hori betez gero, enpresa asko hasiko litzateke, ekonomikoki indartsuak egingo ginatekeelako eta une oro hobekuntzak egingo genituzkeelako. Hortaz, gure helburua 10.000 bezero izatean datza.